



BILBAOMusika Toki Erakunde Autonomiadunaren Udal Musika Eskolarako zenbait espezialitateko musika-irakasleen lan-poltsa sortzeko deialdiaren oinarriak:

Bat.- Deialdiaren zertarakoa

Deialdi hau BILBAOMusika Toki Erakunde Autonomiadunean aldi baterako zerbitzuan jarduteko zenbait espezialitateko musika-irakasleen lan-poltsa sortzea da. Hauek dira espezialitateak:

1) INFORMATIKA MUSIKALA	4) TRIKITIXA
2) KONTRABAXUA / BAXU ELEKTRIKOA	5) TRONPETA
3) SAXOFOIA	6) TXISTUA

Bi.- Hautagaien betebeharrak.

Deialdian onartu eta parte hartzeko baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Adinez nagusia izatea.
- b) 2.618/1.966 Dekretuarekin bat etorrira, Espezialitateko erdi-mailako irakasle titulua eta/edo homologaturen bat edukitzea edo titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu izana. Zenbait espezialitate barne hartzen dituzten probetan nahiko izango da euretako baten titulazioa edukitzea. Informatikako espezialitaterako nahikoa eta nahitaezkoa izango da edozein espezialitateko titulazioa edukitzea.
- c) Eginkizun publikoak betetzeko gaitasunik gabe utzita ez egotea eta inongo herri-administratziotako zerbitzutik diziplina-espediente bidez bereizita ez egotea.
- d) Ezgaitasun edo bateraezintasuneko lege-kausaren batean sarturik ez izatea, Herri Administrazioen zerbitzura jarduten duten Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitakoarekin bat etorrira; hala ere, kargu publikoa eta jarduera pribatua bateraezinak direnean, ez da eragozpenik izango egoera horretan daudenek aukera egin dezaten.

Goian adierazitako betebeharrak guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen denerako eduki behar dira.

Hiru.- Eskabide-orriak aurkeztea

Eskabide-orriak eredu ofizial eta normalizatuan aurkeztu behar dira. Eredu horiek web orrian (www.bilbaomusika.net) eskuratu ahal izango dira deialdiaren oinarriekin batera. Gainera, dokumentu biak BILBAOMusikaren idazkaritzan entregatuko dira (La Galera eraikina, Sorkunde kalea. Tf.: 94 416 47 85).

Lehiaketan onartua izateko eskabidea erakunde autonomiaduneko presidenteari zuzenduko zaio eta beheko baldintzak bete beharko dira eskabidea ez baztertzeko:

- a) Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean hautagaiak deialdiko bigarren oinarrian eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela jasotzea.
- b) NANaren fotokopia eranstea.
- c) Eskatutako tituluaren fotokopia konpultsatua.
- d) Kasua denean, euskarazko hizkuntza-eskakizunaren egiaztagiriaren fotokopia konpultsatua. Momentu horretan fotokopia konpultsatua eransten ez bada, Euskarazko proba baloratzeko aurreko egunean aurkezteko epea amaituko da.
- e) Euskarazko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba egin nahi den adieraztea.
- f) Informatika musikalaren espezialitatean, eskabidearekin batera merezimenduen adierazpena aurkeztuko da, beharrezkoak diren egiaztagiriak erantsita. Eskabideak aurkezteko epearen barruan adierazi eta egiaztatu ez diren merezimenduak ezin izango dira inola ere balioetsi, ezta epearen barruan adierazi baina geroago egiaztatu direnak ere.

Eskabide-orriak, behar bezala beteta, eta lehen aipatutako agiriak 2010eko abenduaren 10eko 14:00ak baino lehenago aurkeztu behar dira BilbaoMusikako idazkaritzan (Sorkunde k. 8, 48006 Bilbo).

Lau.- Epaimahaia.

Epaimahaia honela osatuko da:

EPAIMAHAIKO BURUA: BILBAOMusika TEAko presidentea edo beronek eskuordetzen duena.

KIDEAK: BILBAOMusika TEAko zuzendari kudeatzailea edo beronek eskuordetzen duena.

Bilboko Udalaren Musika Eskolako zuzendaria edo beronek eskuordetzen duena.

Bilboko Udalaren Musika Eskolako irakasle bat.

IVAPeko teknikari bat, euskarazko ezagupenak neurtzeko probarako bakarrik.

Erakunde Autonomiaduneko Langileen Batzordeko ordezkari bat edo beronek eskuordetzen duena.

IDAZKARIA: Kudeaketako zuzendariordea edo beronek eskuordetzen duena.

Epaimahaiak deialdia bete gabe utz dezake, bere iritziz gai den hautagairik ez balego. Epaimahaiak, eratzen denean, azterketak modu egokian egiteko behar diren erabakiak hartuko ditu. Epaimahaiak erabakiko ditu oinarri hauek aplikatzean sor daitezkeen zalantza guztiak eta horietan aurreikusi ez direnetan zer egin ere. Balioz jarduteko, epaimahaiko kide gehienek egon beharko dute eta erabakiak hartzeko bertan daudenen botoen gehiengo beharko da. Kide guztiek dute hitza eta botoa, idazkariak izan ezik.

Bost.- Hautaketa-prozesua

Hautagaiak oposizio sistemaren bidez aukeratuko dira, informatika musikalaren espezialitatean izan ezik; azken hau lehiaketa-oposizioaren bidez egingo baita.

Lehiaketaren fasea

Fase hau Informatika Musikalaren espezialitatean bakarrik egingo da.

Honako titulazioak baloratuko dira: goi-mailako soinu-teknikaria, informatikako goi-mailako teknikariaren bestelako titulazioak edo Unibertsitateko informatika arloko titulazioa.

Aurkeztutako tituluak gehienez 5 punturekin baloratuko dira.

Oposizioaren fasea

Dagokion espezialitateko derrigorrezkoak eta baztertzailleak diren zenbait ariketa praktiko eta/edo teoriko egitea eta, azkenik, euskarazko proba, borondatezkoa, hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko.

Espezialitate bakoitzeko proben zehaztasunak I. Eranskinean daude azalduta.

Ariketa guztietan, euskarazkoan izan ezik, epaimahaiko kideek probari eta irakaskuntzan duen aplikazioari buruzko edo irakaskuntzarekin lotutako edozein galdera egin ahal izango dute eta erantzuna ariketaren balorazioan sar daiteke.

Hautagaiak eurek bakarrik edo piano-jotzaile edo beste instrumentista baten, grabazioen edo MIDI artxiboan laguntzarekin (betiere hautagaien kontura) egin ditzakete ariketak.

Hautagaiak ariketak egiterakoan aurkeztuko dituzten obren kopiak aurkeztuko dizkiote epaimahaiari.

Epaimahaiak ariketak egiteko ordena alda dezake, behar bezala arrazoituta.

Espezialitate bakoitzeko ariketak: Derrigorrezkoa eta baztertzaillea.

Espezialitate bakoitzeko proben zehaztasunak I. Eranskinean daude azalduta.

Euskarazko proba: borondatezkoa eta ez-baztertzaillea.

Borondatezkoa da eta euskararen 1. edo 2. (Hezkuntzakoak) hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko da, epaimahaiak zehaztutako eran. Horretarako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako jarraibideak erabiliko dira, halaxe ezartzen baitu Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 99.1 artikulua. Azterketa hori ez dute egin beharko HAEEn agiriaren bidez hizkuntza-eskakizun hori badaukatela egiaztatzen dutenek, ez eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko apirilaren 15eko 86/97 Dekretuaren 41. artikuluan jasotako titulu baliokideren bat daukateneke ere. 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea espezialitateko ariketen puntuazio guztiaren % 10arekin kalifikatuko da eta % 20arekin 2. hizkuntza-eskakizuna (biak ere hezkuntzakoak).

Ariketa guztiak gainditzen dituzten hautagaiak Eskolan aldi baterako zerbitzuan jarduteko lan-poltsan sartuko dira puntuazioaren ordenaren arabera.

Sei.- Onartuen zerrenda eta probak egiteko lekua eta eguna.

Ariketak egiteko onartutako hautagaien zerrendak 2010eko abenduaren 17tik aurrera jarriko dira ikusgai BILBAOMusikaren egoitzan (La Galera eraikina. Sorkunde k. 8) eta www.bilbaomusika.net web orrian

Horrekin batera, beste hauek ere jarriko dira ikusgai:

1. Informatika musikaleko hautagaiek lehiaketa fasean lortutako puntuazioa.
2. Espezialitate bakoitzeko proba praktikoak eta teorikoak egiteko lekua eta eguna.

Espezialitate bakoitzeko proba teorikoak eta praktikoak 2011ko urtarrilaren 31etik otsailaren 4ra bitartean egingo dira.

Euskarazko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba zenbat hautagaik egingo duten jakindakoan egingo da, proba horiek egiteko IVAPek libre dituen egunen arabera. Hezkuntzako 1 eta 2. hizkuntza-eskakizunen balioak diren administrazioeko hizkuntza-eskakizunak aurkeztu ahal izango dira.

Bilbo, 2010eko azaroaren 10ea

I. ERANSKINA

a) Saxofoia, Trikitixa, Tronpeta eta Txistua.

Lehen ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzaila. 10 puntura arte baloratuko da ariketa eta gutxienez 5 puntu lortu behar dira gainditzeko. Derrigorrezko obra bat jo beharko da.

Bigarren ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzaila. 10 puntura arte baloratuko da ariketa eta gutxienez 5 puntu lortu behar dira gainditzeko. Derrigorrezko obraren estilokoa ez, baizik eta beste estilo batekoa den obra bat, hautagaiak aukeratutakoa, jotzea izango da ariketa.

Derrigorrezko obrak, espezialitatearen arabera:

Saxofoia: "Kontzertua Mi b, saxofoi alturako", A. Glazounovena.

Trikitixa: "JOSTARI Arin Ariña" R. Etxebarriarena (Partiturak BilbaoMusikan jaso ahalko dira. Galera etxean, Sorkunde kaleko 8an eta hautagaiak eskuragarri edukiko dituzte [www. BILBAOMusika.com](http://www.BILBAOMusika.com) orrian.

Tronpeta: "Kontzertua Mi b M", J.N. Hummelena.

Txistua: "Adio sekulako". "Txistu gozoa erdi maila"

b) Informatika musikala

Bigarren ariketa (lehiaketa faseko lehena): Derrigorrezkoa eta baztertzaila. 10 puntura arte baloratuko da ariketa eta gutxienez 5 puntu lortu behar dira gainditzeko. Proba praktikoa, Windows XP-ri buruz. Programa hauek erabili eta konbinatuko dira: Finale 2009, Band in a Box 2008, Sonar 6 eta Melodyne. (Interneteko baliabideren bat erabiltzea ere eskatuko da).

Hirugarren ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzaila. 10 puntura arte baloratuko da ariketa eta gutxienez 5 puntu lortu behar dira gainditzeko. Epaimahaiak proposatutako gai bati buruz, 10 eta 15 minutu bitarteko klase bat ematea edota elkarrizketa txikia edukitzea. Gai hauek eskatu ahalko dira: Lehen ariketako edozein programa, MIDI, audio digitala, grabazioa, nahaste eta masterizazioa.

c) Baxu elektrikoa eta kontrabaxua

Lehen ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzaila. 10 puntura arte baloratuko da ariketa eta gutxienez 5 puntu lortu behar dira gainditzeko. Kontrabaxuz honako zerrenda honetako obra bat jo beharko da edo beste zailtasun antzeko obra bat:

"Elegy in D" G. Bottesinirena.

"Kontzertua Mi m (1. eta 2. mug.)" K. D. Dittersdorfena.

"Valse miniature Op. 1" Koussevitzkyrena.

"Kontzertua (1. eta 2. mug.) Op. 3" Koussevitzkyrena.

Bigarren ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzaila. 10 puntura arte baloratuko da ariketa eta gutxienez 5 puntu lortu behar dira gainditzeko. Epaimahaiak proposatuta, kontrabaxuz jotzeko sekuentzia harmoniko baten irakurketa, akonpainamendua eta inprobisazioa izango da.

Hirugarren ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzaila. 10 puntura arte baloratuko da ariketa eta gutxienez 5 puntu lortu behar dira gainditzeko. Baxu elektrikorako aukera libreko obra bat jotzea

Laugarren ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzaila. 10 puntura arte baloratuko da ariketa eta gutxienez 5 puntu lortu behar dira gainditzeko. Epaimahaiak proposatuta, baxu elektrikoaz jotzeko sekuentzia harmoniko baten irakurketa, akonpainamendua eta inprobisazioa izango da.